


**El Tratado de Libre Comercio EEUU - UE (TTIP)**

# coloca a las multinacionales por encima de la ciudadanía

ERMUAK

TTIP-ri

CETA-ri

EZ

## Geldi dezagun makina hori, berandu baino lehen

# ¿QUÉ ES EL TTIP?

El TTIP o Acuerdo Trasatlántico sobre Comercio e Inversiones se presenta como un tratado que pretende facilitar el intercambio comercial entre Estados Unidos y la Unión Europea, pero todo parece indicar que su objetivo real es desregular los mercados de modo que los intereses económicos de las grandes multinacionales no se vean afectados por las legislaciones que en cada país puedan existir.

Esto significa acabar con las leyes que defienden el medioambiente, la sanidad pública o los derechos laborales. También supone acabar con la soberanía de los pueblos y su capacidad de legislar para garantizar derechos públicos para toda la ciudadanía. En definitiva, situar los intereses económicos de las grandes multinacionales por encima de las personas.

Sólo estos objetivos justifican el secretismo y falta de democracia con la que se esta negociando este Tratado.

Vamos a ver ahora como puede terminar por afectarnos el TTIP en diversos aspectos de nuestra vida.

## EL TTIP Y LOS DERECHOS LABORALES

Aunque nos quieren hacer creer que el TTIP es una gran oportunidad para crear empleo, y así tener más derechos sociales, estudios independientes estiman que sólo en Europa podrían llegar a per-




*La Unión Europea y los EEUU están creando un tratado de libre comercio entre si*

*Europako Batasuna eta AEB elkarren arteko merkataritza libreko ituna egiten ari dira.*

# ZER DA TTIP?

TTIP edo Merkataritza eta Inbertsio Lankidetza Transatlantikoa Ameriketako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko merkataritza-trukea erraztuko duen hitzarmen gisa aurkezten digute, baina, zantzu guztien arabera, merkatuak desarautzea da benetako helburua, tokian tokiko herrialdeetako araudiek multinazional handien interesak kalte ez ditzaten.

Horrek dakar ingurumena, osasungintza publikoa edo lan-eskubideak babesten dituzten legeak bertan behera uztea. Era berean, horrek ekarriko du herrien burujabetza desagertzea, bai eta haien gaitasuna ere herritar guztientzako eskubide publikoak bermatzeko legeak egiteko. Azken batean, multinazional handien interes ekonomikoak pertsonen gainetik jarriko dira.

Halako helburuek baino ez lukete justifikatuko Ituna negoziatzeko izaten ari den ezkutukeria eta demokrazia falta.

Ikus dezagun zein eragin izango duen TTIP itunak gure bizitzaren zenbait alderditan.

## TTIP ETA LAN ARLOKO ESKUBIDEAK

TTIP enplegua sortzeko aukera ezin hobea dela sinetsarazi nahi diguten arren, hala, eskubide sozial gehiago izateko, ikerketa independenteek kalkulatzen dute Europan bakarrik zuzeneko

derse cerca de 600.000 puestos de trabajos directos, (Universidad Tufts, Boston. 2015).

El principal problema es que el TTIP busca acabar con las diferentes legislaciones de cada país y establecer una única regulación más favorable a los intereses del gran capital. Dado que en general en Europa la legislación es más beneficiosa y garantista, las consecuencias si se aprobara el TTIP, sólo podrían afectarnos negativamente.

Es evidente que se favorecerá a las grandes multinacionales y esto provocará pérdida de puestos de trabajo en las pequeña y mediana empresa. (PYMES)

Así el TTIP:

- Protegerá las inversiones transnacionales de las grandes multinacionales, debilitando la capacidad de competencia de las pequeñas y medianas empresas locales.

- Impedirá a las empresas locales recibir ayudas públicas que faciliten su capacidad de competir.

- Los inversores extranjeros podrán demandar a los estados no solo por incumplimiento del tratado, sino también por cualquier medida posterior a la firma, en materia de protección del medioambiente, de regulación financiera, de relaciones laborales, etc. que afecte a su capacidad de obtener beneficios.

El TTIP no va a suponer creación de empleo, sino más bien la precarización de las condiciones laborales, la pérdida de derechos sindicales y una amenaza constante de deslocalización de empresas.

Hay que recordar que EE.UU. no ha firmado 70 Tratados de la Organización Internacional del Trabajo (OIT), entre ellos los concernientes a negociación colectiva, libertad sindical, trabajos forzosos, huelga o trabajo infantil. Así en EE.UU. no se permite la Huelga General, ni se han regulado a nivel nacional las bajas




*Nos dicen que el TTIP estimulará la economía a través de la implantación de las mismas regulaciones legales a un lado y otro del Atlántico. Pero aquí surge una cuestión. ¿Lo que es bueno para las multinacionales es bueno para l@s ciudadan@s?*

***Esaten digute TTIPek ekonomia suspertuko duela, legezko araudiak estandarizatuta. Baina galdera saihestezina da: multinazionaletarako ona dena, ona da herritarrontzat?***




*Pero eso es precisamente lo que no está pasando, las negociaciones se están llevando a cabo a puerta cerrada, lo cual no parece muy democrático*

***Horixe da, hain zuzen ere, gertatzen ari ez dena, negoziazioak ateak itxita egiten ari baitira; ez dirudi oso demokratikoa.***




*Casi todos los asesores consultados en las negociaciones representan intereses de las multinacionales. Todas las decisiones que se están tomando tienen un amplísimo impacto, razón suficiente para seguir de cerca las negociaciones.*

***Negoziazioetan parte hartu duten aholkulari ia guztiak multinazionalen interesen ordezkariak dira. Hartzen ari diren erabaki guztiek ondorio ugari izango dituzte; bada arrazoi nahikoa negoziazioak hurbiletik jarraitzeko.***

## ¿QUÉ HAY EN JUEGO?

## ZER DAGO JOKOAN?

*¿Que intereses hay detrás de estos acuerdos?*

***Zein interes daude akordio hauen atzean?***

600.000 lanpostu galduko liratekeela (Tufts Unibertsitatea, Boston).

Arazo nagusia da TTIPek herrialde bakoitzeko legeriarekin amaitu nahi duela, kapital handiaren interesen aldekoagoa den araudi bakarra ezartzeko. Oro har, Europan legeria onuragarriagoa eta bermatzaileagoa denez, TTIP onartuz gero, aldaketek txarrerako eragingo ligukete, edonola ere.

Agerikoa da multinazionalei egingo zaiela mesede, eta horrek eragingo luke enpresa txiki eta ertainetan (ETE-etan) lanpostuak galtzea.

Hala, TTIPek ondokoak ekarriko ditu:

- Multinazional handien inbertsio transnazionalak babestuko ditu, eta tokiko enpresa txiki eta ertainen lehia-gaitasuna ahuldu.

- Tokiko enpresei lehia-gaitasuna ematen dieten laguntza publikoetarako sarbidea ukatuko die.

- Atzerriko inbertsoreek estatuak salatu ahal izango dituzte, ituna ez betetzeagatik ez ezik, izenpetzearen ondoren hartuko litzatekeen beste edozein neurrirengatik ere, ingurumenaren babesaren arloan, arautze finantzarioaren arloan, lan-harremanen arloan, etab., etekinak lortzeko haien gaitasunari eragiten dionean.

TTIPek ez du enplegua sortuko; aitzitik, lan-baldintzen prekarizazioa ekarriko du, baita eskubide sindikalen galera eta enpresak deslokalizatzeko etengabeko mehatxua ere.

Gogoratu behar da AEBek ez dituztela izenpetu Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 70 Itun, horien artean negoziazio kolektiboari dagozkionak, askatasun sindikalari buruzkoak, bortxazko lanei buruzkoak, grebari dagozkionak edota haurren lanaren gainekoak. Hala, AEBetan ez dago Greba Orokorra egiterik, ez dira maila nazionalean arautu gaixotasunagatiko bajak, ezta oporrak eta kaleratzeagatiko kalte-ordainak ere.

por enfermedad, ni las vacaciones, ni la indemnización por despido. Estas se han de negociar en cada empresa y los límites varían en cada Estado del país. La baja por enfermedad, por ejemplo, varía entre 3 y 6 días al año.

Si con el TTIP, las condiciones se igualan a la baja, como es previsible, cualquier intento de legislar para recuperar o mejorar los derechos laborales, por ejemplo una nueva regulación del salario mínimo interprofesional, provocará que los inversores extranjeros acudan a los tribunales arbitrales creados para resolver conflictos entre inversor y estado (ISDS), en el que prevalecerá el interés particular del inversor sobre el interés publico de la ciudadanía.

## EL TTIP Y LOS DERECHOS SOCIALES

El TTIP también tendrá implicaciones muy negativas y de largo alcance para los **sistemas de sanidad públicos**. Con el TTIP se busca la apertura al mercado y a la inversión privada de los presupuestos de salud pública. Es decir, convertir la salud pública en un negocio y una privatización más o menos encubierta de los sistemas públicos de salud, siguiendo el modelo estadounidense, donde el acceso a la sanidad es sólo para quienes pueden permitírselo

Además, también reducirá las normas de transparencia y control de los ensayos clínicos de los laboratorios farmacéuticos, a la vez que incrementará el poder de las empresas farmacéuticas para decidir sobre qué investigar y a qué precio vender los medicamentos.

Así mismo, como en otras áreas los tribunales de arbitraje impedirán que servicios privatizados o externalizados vuelvan a ser públicos.

El TTIP también surtirá efectos negativos sobre la **educación pública,** incrementando la tendencia a la privatización de




*Carne tratada con hormonas, ganado clonado, pollo clorado e ingeniería genética que se ha afianzado en EEUU. La Unión Europea aún prohíbe todo esto, pero las multinacionales han dejado claro sus intereses.*

*Hormonez tratatuariko haragiak, azienda klonatua, oilasko kloratua eta AEBn finkatuta dagoen ingeniaritza genetikoa. Europako Batasunak debekatuta du oraindik hori guztia, baina multinazionalek argi utzi dituzte beren interesak.*




*En EEUU la práctica del FRACKING se ha expandido masivamente para aumentar los suministros de gas y pètróleo. Bajo presión elevada y una mezcla de químicos y agua, las bolsas de hidrocarburos se comprimen bajo tierra: Esto da lugar a la contaminación del agua potable y los suelos.*

*AEBn, FRACKINGA masiboki hedatu da gas- eta petrolio-hornidurak handitzeko. Presio handi pean eta zenbait kimiko eta ura nahastuta, lurrean konprimatzen da, eta edateko ura eta lurrak kutsatzen dira.*




*Por ejemplo, el Consejo Nacional de productores de Carne de Cerdo de EEUU ha declarado que no aceptará ningún resultado en el que la terapia hormonal generalizada esté prohibida*

*Adibidez, Txerriki Ekoizleen AEBko Batzorde Nazionalak adierazi du ez duela onartuko terapia hormonal orokortuaren debekua dakarren inolako emaitzarik.*




*El TTIP promete exportaciones baratas de gas, pero a qué precio ¿y quien es el responsable del daño causado? Grupos medioambientales de todo el mundo rechazan el FRACKING*

*TTIPek gas-esportazio merkeak hitzematen ditu, baina zein preziotan? Nor da eragindako kaltearen erantzulea? Ingurumenaren aldeko mundu osoko taldeek FRACKINGA gaitzesten dute.*

Horiek enpresaz enpresa negoziatu behar dira, eta mugak aldakorrak dira herrialdeko Estatu bakoitzean. Gaixotasunagatiko baja, esaterako, urteko 3 eta 6 egun bitartekoa da.

TTIPekin baldintzak beherantz berdintzen bazaizkigu, aurreikus daitekeen moduan, lan-eskubideak leheneratzeko edo hobetzeko edozein saiakerak (lanbide arteko gutxieneko soldataren arautze berria, esaterako) atzerriko inbertsoreek euren eta estatuaren arteko gatazkak konpontzeko sortutako arbitraje-auzitegietara (ISDS) jotzea ekarriko luke, eta horietan inbertsorearen interesa egongo da herritarren interes publikoaren gainetik.

## TTIP ETA ESKUBIDE SOZIALAK

TTIPek eragin oso negatibo eta epe luzerakoak izango ditu **osasungintza publikoko sistemetan** ere. TTIPen bidez, osasungintza publikoko aurrekontuak merkatuari eta inbertsio pribatuari zabaltzea nahi dute. Hau da, osasun publikoa negozio bihurtzea eta osasun-sistema publikoen gutxi gorabeherako pribatizazio ezkutua, Estatu Batuetako ereduari jarraiki, non osasungintzarako sarbidea bitarteko ekonomikoak edukitzearen araberako den.

Gainera, laborategi farmazeutikoetako saiakuntza klinikoetako gardentasun- eta kontrol-arauak murriztuko ditu, eta enpresa farmazeutikoen boterea areagotu: errazago erabaki ahal izango dute zer ikertu eta botikak zein preziotan saldu.

Era berean, beste hainbat arlotan bezala, arbitraje-auzitegiek zerbitzu pribatizatu edo esternalizatuak berriz publiko bihurtzea galaraziko dute.

TTIPek **hezkuntza publikoan** ere izango ditu eragin negatiboak, horren pribatizaziorako joera areagotuko baitu, horrek dakarren kaltearekin. Hezkuntza ez da eskubidea izango, eta negozio bilakatuko da. "Aukera-berdintasuna"

la misma y sus negativas consecuencias. La educación dejará de ser un derecho para convertirse en un negocio. Valores como la "igualdad de oportunidades" se verán sustituidos por "la excelencia", o lo que es lo mismo, la inversión de mayores recursos, donde mejores son los resultados. Esto supone la segregación del alumnado en grupos según sus presuntas capacidades e incluso la diferenciación de los salarios de los docentes según los resultados académicos de sus estudiantes.

Asimismo empresas privadas tendrán cada vez mayor influencia en aspectos tan importantes como organización del centro, el acceso del profesorado a su puesto de trabajo, actividades extraescolares, etc.

## EL TTIP Y LAS MUJERES

La destrucción de derechos, que ya viene siendo sistemática con la excusa de la crisis, y que continuará con la firma del TTIP dará como resultado una mayor precarización de la sociedad y, por consiguiente, una mayor carga de trabajo para las mujeres.

La privatización o venta de los servicios públicos reduce la calidad de vida de niños, niñas, personas mayores y dependientes. Esto hará que las mujeres, a costa de su salud y bienestar, intenten minimizar este grave problema. En el caso de rentas más altas, la situación se solventará traspasando las labores de cuidados a las mujeres migrantes, en condiciones laborales precarias.

En la actualidad, las mujeres ya sufrimos la presión de la exclusión. El 70% de la población mundial en situación de pobreza son mujeres. Ello es debido a la brecha salarial, el techo de cristal y a que tenemos un mayor porcentaje de empleo a tiempo parcial. La división sexual de trabajo nos mantiene en la desigualdad y nos impide el empoderamiento económico necesario para poder estar




*En 2010, después de la crisis financiera, EEUU dio a sus autoridades administrativas la opción de regular las filiales extranjeras de los bancos estadounidenses. Esto hizo enfadar a la industria financiera de EEUU.*

*2010ean, krisi finantzarioaren ondoren, AEBk banku estatubatuarren atzerriko filialak arautzeko aukera eman zien herrialdeko administrazio-agintariei; AEBko industria finantzarioa izugarri haserretu zen.*



*Pero han encontrado un aliado en la UE, que ha pedido el reconocimiento de las leyes europeas, más permisivas hacia los bancos.*

*Baina EB aliatu bihurtu zaie, banketxeekiko onuragarriago den legedia europarra onartzea eskatu baitu negoziazioetan.*



*Los derechos de los trabajadores se ganaron luchando duro en esta parte del mundo. En EEUU en cambio, apenas hay derechos vinculantes que protejan a los trabajadores, ningún derecho en elección de comité de empresa o para los sindicatos a involucrarse en huelgas.*

*Langileen eskubideak gogor borrokatuta erdietsi ziren munduko alde honetan; AEBn, ordea, ia ez dago langileak babesteko eskubide loteslerik, enpresa-komitea aukeratzeko inolako eskubiderik edo sindikatuek grebetan parte hartzekorik.*



*Los derechos laborales están en serio peligro con el TTIP.*

*Langileen eskubideak zuzeneko arriskuan daude, TTIP-rekin.*

bezalako balioak "bikaintasuna" bezalakoekin ordeztuko dira, edo, bestela esanda, zenbat eta emaitza hobeak izan, hainbat eta baliabide gehiago inbertituko dira, eta horrek ikasleen balizko gaitasunen araberako segregazioa ekarriko du, edota irakasleen soldatetan ezberdintasuna ezartzea, ikasleen emaitza akademikoen arabera.

Halaber, enpresa pribatuek gero eta garrantzi handiagoa izango dute funtsezko hainbat alderditan, hala nola, ikastetxearen antolaketan, irakasleen lanposturako sarbidean, eskolaz kanpoko jardueretan, ,etab.

## TTIP ETA EMAKUMEAK

Eskubideen murrizketa sistematikoa izaten ari da krisiaren aitzakiarekin, eta bere horretan jarraituko du TTIP izenpetzearekin batera; horren emaitza izango da gizartearen prekarizazio gero eta nabarmenagoa eta, beraz, emakumeen lan-zama handiagoa.

Zerbitzu publikoen pribatizazioak haur, adineko eta menpeko pertsonen bizikalitatea murriztuko du. Horrek eragingo du emakumeek arazo hori arindu nahi izatea, euren osasun eta ongizatearen kaltetan. Errenta altuagoen kasuan, egoera hori konponduko da zaintza-lanak emakume migratzaileei emanda, baina lan-baldintza prekarioetan.

Egun, emakumeok bazterkeriaren presioa jasaten dugu. Pobrezia-egoeran dagoen munduko biztanleriaren % 70 emakumeak dira. Hori eragiten dute soldata-ezberdintasunek, kristalezko sabaiak eta lanaldi partzialeko enplegu-portzentaje handiagoa izateak. Lanaren banaketa sexualak ezberdintasunean mantentzen gaitu, eta ahalduntze ekonomikoa galarazten du, joko-arauen negoziaziorako bidezko lekuan egoteko ezinbestekoa dena. TTIPek arau horiek are ezberdinagoak izatea eragingo du, emakumeen lana are gehiago prekarizatuta.

en una posición justa de negociación de las reglas del juego. El TTIP hará que estas reglas sean aún más desiguales, contribuyendo a precarizar aún más el trabajo de las mujeres.

**Al aumentar la liberalización económica también las mujeres se han visto especialmente afectadas por las consecuencias de los tratados de libre comercio. Así asumen más puestos de trabajo en la parte baja de la cadena de valor, puestos más afectados por la temporalidad, peor remunerados y con menos probabilidad de desarrollo profesional.**

## EL TTIP, EL MEDIO AMBIENTE Y LA SEGURIDAD ALIMENTARIA

El medio ambiente también va a sufrir las consecuencias del TTIP si este llega a prosperar. **La normativa ambiental**, en general, perdería poder frente a las empresas y el mercado. Cada país vería mermada su capacidad de legislar a favor de la protección ambiental y, de hacerlo, podría enfrentarse a demandas millonarias por parte de las empresas que vieran perjudicada su actividad económica.

El **fracking**, es decir la agresiva extracción de gas del subsuelo por fracturación hidráulica, sería una de las actividades que podría legalizar el TTIP. Este tipo de procedimientos tiene severas consecuencias de contaminación sobre el agua, el aire, el suelo, además de reactivar el efecto invernadero.

Otro punto importante del TTIP son **los alimentos transgénicos**, semillas genéticamente modificadas. Estos cultivos transgénicos dañan al medioambiente al disminuir la biodiversidad, que es esencial para la salud del planeta. Esto favorecerá el modelo de producción de las grandes explotaciones agroalimentarias, dificultando todavía más la labor de los pequeños productores agro-ganaderos locales, que son quienes posibilitan la diversidad cultural y alimentaria




El mecanismo de Resolución de Controversias entre Inversores y estados (ISDS) que el TTIP incluye es especialmente peligroso para los estados y sus ciudadanos

**TTIPek jasotzen duen mekanismoa Inbertsoreen eta Estatuen arteko Gatazkak Ebazteko (ISDS) bereziki arriskutsua da estatuetarako eta bertako herritarrentzako.**




Si una ley afecta negativamente a los beneficios de una multinacional, ésta puede denunciar al Estado por los daños, todo ello a expensas de los contribuyentes.

**Lege batek multinazional baten interesetan ondorio negatiborik badu, multinazionalak Estatua sala dezake kalteengatik, guztia zergapekoen kontura.**




Y las demandas de las multinacionales son más que probables, dado que las expectativas de beneficios se ven limitadas por leyes medioambientales, legislaciones de salario mínimo, subida de impuestos o prohibición de ciertos productos.

**Eta ia ziurra multinazionalek da salaketak egongo direla, ingurumen-legeek, gutxieneko soldatari buruzko legeriek, zerga-igoerek edo produktu jakin batzuen debekuak etekinak eskuratzeko itxaropenak mugatzen dituztelako.**




Lo que es más problemático es que dichas quejas no se tratarán en los tribunales ordinarios. Se usaran "tribunales de arbitraje" privados, compuestos por tres abogados, y sus decisiones son vinculantes bajo ley internacional

**Are larriagoa da kexa horiek ez direla auzitegi arruntetan ebatziko. "Arbitraje-auzitegi" pribatuak erabiliko dira, hiru abokatuk osatuak, eta haien erabakiak lotesleak izango dira nazioarteko legearen arabera.**

**Liberalizazio ekonomikoa zabalduta, emakumeek ere pairatu dituzte merkataritza libreko Itunen ondorioak. Hala, balio-katearen alderik baxueneko lanpostu gehiago hartzen dituzte euren gain, aldi baterakoak izaten direnak sarriagotan, okerrago ordaindutakoak eta profesionalki garatzeko aukera gutxiago ematen dutenak.**

## TTIP, INGURUMENA ETA ELIKADURA SEGURTASUNA

Ingurumenak ere jasango ditu TTIPen ondorioak, ituna aurrera ateratzen baldin bada. **Ingurumenari buruzko araudiak**, oro har, boterea galduko luke enpresen eta merkatuaren aurrean. Herrialdeek murriztuta izango lukete ingurumena babesteko legeak egiteko gaitasuna, eta, legeok sortzekotan, enpresen aldetik milioi ugariko demandak jaso litzakete enpreson jarduera ekonomikoa kaltetuz gero.

TTIPek legezta lezakeen jardueretako bat **fracking**a izan liteke, hots, lur azpiko gasa haustura hidraulikoaren bitartez ateratzeko jardun agresiboa. Prozedura-mota horrek uraren, airearen eta lurraren gaineko kutsadura-ondorio larriak ditu, eta negutegi-efektua berpizten du.

TTIPen beste puntu garrantzitsu bat **elikagai transgenikoak** dira, genetikoki eraldaturiko haziak. Labore transgeniko horiek ingurumena kaltetzen dute, bioaniztasuna murrizten baitute, funtsezkoa dena planetaren osasunerako. Horrek mesede egingo dio ustiategi agroalimentario handien ekoizpen-ereduari, eta haiek are zailagoa bilakatuko dute nekazaritza eta abeltzaintzako tokiko ekoizle txikien lana, alegia, bertako haziei eta arrazei eutsiz planetako txoko bakoitzeko kultura- eta elikagai-aniztasuna ahalbidetzen duten horiena.

Transgenikoen enpresa ekoizleek uko egin diote haien elikagaiak etiketatzeari, transgenikoak direla adieraz dezaten, beraz, elikagaiok kontsumitzen di-

de cada zona del planeta, sosteniendo semillas y razas autóctonas.

Las empresas productoras de transgénicos, se han negado a etiquetar sus alimentos declarándolos como transgénicos, de manera que quienes los consumimos no podemos optar entre hacerlo o no. Con el tratado del TTIP, los transgénicos podrían generalizarse y la calidad de nuestros alimentos caería en picado. Tendríamos que exponernos a muchas más afecciones relacionadas con la alimentación, como un aumento de las enfermedades derivadas, intolerancias, alergias, obesidad y un descenso acusado en la calidad de nuestra salud

En lo referente a l**a seguridad alimentaria** el principal cambio que traerá el TTIP es el cambio del Principio de Precaución por el Principio de Riesgo. El principio de precaución, que aplica la UE en la actualidad, dice que ante cualquier sospecha de sustancias potencialmente peligrosas dichos alimentos no pueden llegar al consumo de la ciudadanía. Sin embargo, el principio de riesgo, aplicado en los EEUU, impone que hasta que se demuestre que existe un peligro real no se puede prohibir la comercialización de los alimentos.

Este cambio de principio, directamente nos afectará de la siguiente manera:

- Aumento de productos tratados transgénicamente para la alimentación de personas. Hasta ahora la UE sólo comercializa 3 clases de productos transgénicos que se destinan principalmente para la elaboración de piensos, con el TTIP el número de alimentos transgénicos se multiplicaría e iría destinado al consumo humano.

- Entrada en el mercado europeo de carne producida por hormonas de crecimiento, así como la comercialización de los derivados de los mismos.

- Se permitiría una mayor variedad de pesticidas, herbicidas, fertilizantes, etc. Que en la actualidad no están permitidos




*Los tratados de libre comercio les pueden salir muy caros a los contribuyentes, tal y como Canadá está descubriendo a raíz del NAFTA (Tratado de Libre Comercio de América del Norte, dentro del cual están también Estados Unidos y México)*

***Merkataritza libreko itunak oso garesti atera ahal zaizkie zergadunei; Kanada horixe egiaztatzen ari da, Estatu Batuekin eta Mexikorekin sinaturiko Ipar Amerikako Merkataritza Askeko Itunari (NAFTA) esker.***




*Los residentes de Quebec aprobaron en un referéndum proteger el medio ambiente del "FRACKING"*

***Quebeceko bizilagunek ingurumena FRACKINGetik babesteko erreferendum batean erabaki zuten.***




*Después, una compañía de FRACKING demandó al gobierno de Canadá por 250 millones de dólares en concepto de daños.*

***Gero, FRACKING enpresa batek Kanadako gobernua salatu zuen, kalteengatik 250 milioi dolar eskatuta.***




*Tampoco se puede creer en las grandes promesas de crecimiento, prosperidad y nuevos empleos. Los expertos calculan que el NAFTA le ha costado a EEUU 700.000 empleos y ha aumentado masivamente la pobreza en el sur de México*

***Era berean, sinesgaitzak dira hazkundea, oparotasuna eta lanpostu berriak sortuko direlako promesa handiak. Adituek kalkulatzen dute NAFTA 700.000 lanpostu kostatu zaizkiola AEBri, eta pobrezia masiboki areagotu da Mexikoko hegoaldean.***

tugunok ez dugu aukerarik kontsumitu ala ez erabakitzeko. TTIP itunari esker, transgenikoak orokortu egin litezke, eta gure jakien kalitateak hondoa joko luke. Elikadurarekin loturiko gaixotasun askoz gehiago jasan genitzake, eratorritako gaixotasunak, intolerantziak, alergiak eta loditasuna areagotu egingo liratekeelako; gure osasunaren kalitatea, ordea, murriztu egingo litzateke.

**Elikadura-segurtasuna**ri dagokionez, TTIPek ekarriko duen aldaketa nagusia da Prekauzioaren Printzipioaren ordez Arriskuaren Printzipioa ezartzea. Lehenengoaren arabera, egun EBn aplikatzen dena, elikagaiak arriskutsuak izan daitezkeelako edozein susmo izanez gero, elikagaiok ezin dira iritsi herritarren kontsumora. Bigarrenaren arabera, aldiz, AEBn aplikatzen dena, elikagaiak benetako arriskua dakarrela frogatu arte ezin da merkatura dadin debekatu.

Printzipio-aldaketa horrek honela eragingo digu zuzenean:

- Modu transgenikoan trataturiko produktuak ugaritu egingo dira pertsonak elikatzeko. Orain arte, EBk 3 produktu transgeniko mota besterik ez du merkaturatu, nagusiki pentsuak egiteko baliatzen direnak; TTIP itunari esker, baina, elikagai transgenikoen kopurua biderkatu egingo litzateke, eta pertsonon kontsumorako izango lirateke.

- Europako merkatuan hazkuntza-hormonek ekoitzitako haragia sartuko litzateke, eta horien eratorriak merkaturatu egingo lirateke.

- Pestizida, herbizida, ongarri... gehiago baimenduko lirateke, egun debekatuta daudenak eta elikagaietan hondakinak uzten dituztenak.

## TTIP, GATAZKAK EBAZTEKO AUZITEGIAK ETA HERRIEN SUBIRANOTASUNA

TTIPek multinazionalen inbertsioak babestea aurreikusten du, horretarako

y que dejan restos en los alimentos.

## EL TTIP, TRIBUNALES DE RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS Y LA SOBERANÍA DE LOS PUEBLOS

El TTIP prevé proteger las inversiones de las multinacionales, creando tribunales privados para la resolución de conflictos (ISDS). Estos tribunales privados actuarían al margen de las leyes y tribunales de cada país, creando una justicia a la carta para los intereses de las multinacionales.

Así, las multinacionales podrán demandar a un Estado ante estos tribunales privados y poco transparentes, cuando consideren que la legislación que aplique ese país en materia de políticas sociales, laborales o ambientales pueda afectar negativamente a sus intereses económicos.

En definitiva, esto supondría un ataque a la soberanía de los pueblos ya que reduciría la capacidad de éstos para promover leyes y políticas de interés público, primando los intereses económicos de las multinacionales sobre los derechos de las personas.

**Diferentes tratados de libre comercio han avalado los "derechos" económicos de las multinacionales sobre las legislaciones propias de cada país. Por ejemplo, tras la firma del NAFTA (Tratado de Libre Comercio entre Canadá, México y EE.UU.), Canadá aprobó en 2011 una moratoria sobre el fracking. Inmediatamente recibió más de 50 demandas por parte de empresas energéticas ante tribunales privados. Ahora se enfrenta a demandas por más de 1000 millones si no retira la moratoria.**




*Estas son, con marcada evidencia, las palabras bonitas y promesas que se dijeron una vez, y que ahora oímos una vez más*

***Hauek dira, nabarmen-nabarmen, behin esan ziren hitz polit eta promesak, orain berriro entzuten ari garenak.***




*Los beneficiados con los tratados de libre comercio son únicamente los bancos y las multinacionales.*

***Merkataritza libreko itunen onurak jasotzen dituzten bakarrak bankuak eta multinazionalak dira.***




*Pero aún podemos hacer algo*

*PAREMOS EL TTIP Y EL CETA !!*

*Baina oraindik zerbait egin dezakegu*

***GELDIARAZ DITZAGUN TTIP ETA CETA!!***

Estas viñetas han sido extraidas del video de la organización ATTAC cuyo link es:

https://www.youtube.com/watch?v=hU8SsEtFvds

Bineta hauek ATTAC erakundearen bideo honetatik atera ditugu:

https://www.youtube.com/watch?v=hU8SsEtFvds

gatazkak ebazteko auzitegi pribatuak (ISDS) sortuta. Auzitegiok herrialde bakoitzeko lege eta auzitegietatik aparte jardungo lukete, multinazionalen interesen mesederako nahierako justizia sortuta.

Hala, multinazionalek ahalmena izango dute estatu bat auzitegi pribatu eta gardentasun urriko horien aurrean salatzeko, herrialde horrek gizarte-, lan- edo ingurumen-politiken arloan aplikatzen duen legeriak haien interes ekonomikoak kalte ditzakeela uste badute.

Laburbilduta, horrek herrien subiranotasuna erasoko luke, interes publikoko legeak eta politikak sustatzeko herrion gaitasuna murriztuko bailuke, multinazionalen interes ekonomikoak pertsonen eskubideen gainetik jarrita.

**Merkataritza libreari buruzko hainbat itunek eman izan diete lehentasuna multinazionalen "eskubide" ekonomikoei herrialde bakoitzeko legerien gainetik. Esate baterako, NAFTA (Kanada, Mexiko eta AEBen arteko Merkataritza Librearí buruzko Ituna) sinatu ostean, Kanadak frackingari buruzko luzamendu bat onartu zuen 2011n. Berehala, enpresa energetikoek 50 salaketa baino gehiago jarri zizkioten Auzitegi Pribatuetan. Orain, luzamendua erretiratu ezean, herrialdeak 1.000 milioitik gorako demandei egin beharko die aurre.**

# EGITARAUA - PROGRAMA

**Azaroak 30 miércoles**

## HITZALDIA

**“¿Qué es el TTIP, Qué implica, Cómo nos afecta?”**

Juan Hernández y Júlia Martí,

**TTIP eta CETA-ren Aurkako Kanpainako kideak**

**19:00 Lobiano Kulturgunean**

*

**Abenduak 2 viernes**

## CONCENTRACIÓN

**“Paremos el TTIP y el CETA”**

**“ERMUA-k TTIP eta CETA-ri EZ!!”**

**19:30 Ermuko Plazan**

*

**Azaroaren 22tik Abenduaren 2ra**

## ERAKUSKETA

**“Zer da TTIP?”**

**Liburutegiko atarian**

**Asamblea de Mujeres de Ermua | Ateneo Libertario | Komite Internazionalistak**
**ESK | CCOO | LAB | Podemos | Irabazi | EH Bildu | Gazte Komunistak**